

COLORBRAIN.

BEZEROEKIN HARREMANAK.

Bezeroarekin harremanak izateko ere, aurretik azaldu dugun moduan online eta modu presentzialean egiteko aukera izango dugu. Web orrialdean sortu dugun premium atal horren suskripzioak kudeatzeko, 2 administrari izango ditugu ondorengo zereginak izango dituztenak:

- **Hitzorduak antolatuko dituzte.** Web orrialdean jarriko dugun hitzordu gunean, egutegi bat izango da bertan nahi den eguna eta ordua aukeratzeko. Administrazioek, ColorBrainen agenda antolatuko dute, horretan oinarrituz. Hori dela eta, jendeak nahi dituzten egunetan hitzorduak hartzeko aukera emango dugu eta dena modu antolatu batean izango dugu.
- **Talde terapiak antolatu.** Aipatu dugun bezala beste gune bat edukiko dugu onlinez talde terapiak egiteko edo modu presentzialean egiteko. Horretarako ere, administrazioek egunak eta orduan zehaztuko dute.
- **Diru sarrerak kudeatu.** Suskripzio eta dendaren bidez lortutako dirua antolatuko dute. Hau da, diru kontuaren arduradunak izango dira galera eta irabaziak kudeatuz.